

# Europako osasun-txartela ondoko herrialdeetan erabil daiteke

## ★ Europar Batasuneko Estatuak/ Europako Esparru Ekonomikoa


Alemania - Austria  
Belgika - Bulgaria  
Zipre - Kroazia  
Danimarka - Eslovakia  
Eslovenia - Estonia  
Finlandia - Frantzia  
Grezia - Hungaria  
Irlanda - Italia  
Letonia - Lituania  
Luxemburg - Malta  
Herbehereak - Polonia  
Portugal - Erresuma Batua  
Txekiar Errepublika - Errumania  
Suedia

## ★ Europako Esparru Ekonomikoa Liechtenstein, Islandia eta Norvegia

## ★ Suitza

Europako Esparru Ekonomikoko  
herrialdekoak edo Suitzakoak ez diren  
hirugarren herrialde bateko nazionalak  
direnean, EOT-k ez du honako  
herrialdeetan baliorik izango:

- ✓ Danimarka, Islandia, Liechtenstein,  
Norvegia eta Suitza.




Itsasoko Gizarte Institutua

[www.seg-social.es](http://www.seg-social.es)  
<https://sede.seg-social.gob.es/>

# OSASUN LAGUNTZA EUROPAN BIDAIATZEN DUTENEAN

## ITSASOKO LANGILEEK

@dministración  
electrónica



Dep. Legal M-25543-2014

NIPO web: 273-14-019-8

Nipo papel: 273-14-014-0

20140910 (eusk)



GOBIERNO  
DE ESPAÑA

MINISTERIO  
DE EMPLEO  
Y SEGURIDAD SOCIAL

GIZARTE SEGURANTZAREN  
ESTATUTU IDAZKARITZA  
ITSASOKO GIZARTE  
INSTITUTUA

SECRETARIA DE ESTADO  
DE LA SEGURIDAD SOCIAL  
INSTITUTO SOCIAL  
DE LA MARINA

# Europako osasun-txartelaren erabilera

## Europako Osasun Txartela (EOT).

Mediku ikuspuntutik, beharrezkoa den osasun-laguntza jasotzeko eskubidea egiaztatzen duen dokumentua da Europako Osasun Txartela (EOT), Europako Eremu Ekonomikoko lurraldera<sup>(1)</sup> edo Suitzan aldi baterako egonaldian; horretarako, beharrezkoa den laguntza mota eta lurralde horretan egoteko aurreikusten den denbora kontuan hartuko da, bertako legeriaren arabera, eta bertan egoteko zergatia turismoa, jarduera profesionala edo ikasketak burutzea bada ere.

**Europako Osasun Txartela (EOT) ez da baliozkoa tratamendu medikoa jasotzea bada bidaiaren zergatia; kasu horretan, Itsasoko Gizarte Institutuak (IGI) dagokion inprimakia igorri beharko du, eta horretarako, aurretik Osasun Zerbitzuak aldeko txostena eman beharko du. Halaber, dokumentu hau ez da baliozkoa izango beste Estatu kide batera bizitzera joaten bazara.**

Txartel hau pertsonala eta besterenezina da, eta beraz, eskubidea duen titularraren familiak berarekin batera bidaia egiten badu, familia-unitatearen kide bakoitzeko txartel bat izango da beharrezkoa.

Indarrean dagoen bitartean EOT erabiltzen jarraitu ahal izateko, bere titularrak EOT lortu zuen unean betetzen zituen baldintzak betetzen jarraitu beharko du. Bestela, sortutako gastuak ordaindu beharko ditu, EOT oker erabiltzeagatik.

Dagoeneko EOT baduzu, orduan, Europako Eremu Ekonomikoko lurraldeko<sup>(1)</sup> edozein herrialdetara edo Suitzara bidaiatu aurretik, aurreikusten duzun itzultzeko data EOT-ren baliotasunak barne hartzen duela ziurtatu beharra duzu. Hala ez bada, berri bat eskatu beharko duzu.

<sup>(1)</sup> Liburuxkaren atzealdean Europako Eremu Ekonomikoko lurraldeko herrialdeak zehaztuta daude.

## Nola lortu EOT?

**EOT INTERNETen bidez** lortu edo berritu dezakezu, **Egoitza Elektronikoa**ren bidez, Gizarte Segurantzaren web-gunean, eta **zerbitzu honetan sartzeko ez duzu ziurtagiri digitalik behar. Halaber erabiltzailea eta pasahitza baldin baduzu**, baita “**TU SEGURIDAD SOCIAL**” web-atarian dagoen zerbitzuaren bitartez **lortu ahal izango duzu ere**.

Edozein modutan eskatzen duzula ere, gehienez 10 eguneko epean EOT eskatzailearen helbidera bidaliko da.

Gaur egun, EOT oro har 2 urterako ematen da, bai titularrentzat baita onuradunentzat ere.

Bidaia berehalakoa denean eta EOT etxean jasotzeko denborarik ez badago, orduan Interneten bidez **Behin-behineko Ordezko Ziurtagiria (BOZ)** eskatzeko aukera dago, **ziurtagiri digitala edo erabiltzailea eta pasahitza baduzu(\*)**.

Zenbait kasutan aseguratuak **ezin dute Interneten bidez Europako Osasun Txartela (EOT) jaso**:

- Langabezia sariak jasotzen dituztenak eta beren onuradunak.
- Aldi baterako kontratua duten aseguratuak.
- Diru-sarrera mugagatik osasun-laguntzarako eskubidea onartuta duten aseguratuak, edo langabezia sariak agortu dituztenak.
- Osasun-laguntzarako eskubidea esportatzeko dokumentuak aurkeztu behar dituzten AIZ duten onuradunak eta aseguratu guztiak.

## Atzerrian zaudenean kontuan hartu beharreko alderdi garrantzitsuak

Aldi baterako bisitatzen ari zaren herrialdeko osasun sistemaren zerbitzu publikoetara edo hitzartutako zerbitzuetara jo beharko duzu.

Bertako aseguratuaren baldintza beretan tratatuko zaituzte, eta ondorioz, kasu askotan zenbateko finko bat edo osasun-laguntzatik eratorritako gastuen ehuneko bat ordaindu beharko duzu. Zenbateko hori ez zaizu itzuliko.

Zenbait herrialdetan, mediku-gastuen zenbateko osoa hasieran ordaindu beharra dago. Kasu horretan, herrialde horretako gaixotasun aseguruaren erakundera jo beharko du aseguratuak, ordain litezkeen zenbatekoen itzultzea eskatzeko, herrialde horretan indarrean dagoen legeriaren arabera.

Herrialde horretan gastuen itzultzea eskatu ezin izan badu, edo EOT edo Behin-behineko Ordezko Ziurtagiria (BOZ) aurkeztu ez badu, orduan itzultze hori Espainiara itzultzerakoan eskatzeko aukera izango du; horretarako, gastuen ordainaren jatorrizko agiri guztiak aurkeztu beharko ditu dagokion Itsasoko Gizarte Institutuaren Probintziako Zuzendaritzan.

Itzultzeko zenbatekoa, balego, herrialde horretako erakundeak erabakiko du, bere araudiaren arabera.

**(\*) Dena dela, EOT nahiz Behin-behineko Ordezko Ziurtagiria (BOZ) eskatzeko, Itsasoko Gizarte Institutuko edozein Probintziako edo Tokiko Zuzendaritzara jo daiteke Atzerrian zaudenean kontuan hartu beharreko alderdi garrantzitsuak.**